



BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Gure produktuak egiteko itsasotik plastikoak bildu behar ditugunez, MATER itsasontziarekin egingo dugu akordio bat beraiek plastikoa ekartzearen truke, guk beraiei publizitatea egingo diegu. Beraz, gure bazkide estrategiko bihurtuko dira. Hauek normalean hilean 3 aldiz irteten direnez zaborra biltzera, bada ezpada beste kontratu batzuk ere egingo ditugu, plastikorik gabe geratu ez gaitezen.

Batetik, Udaletxearekin hitz egingo dugu eta zaborra biltzen duten kamioiko plastikoa guri ekartzeko akordioa egingo dugu.

Bestetik, gure zaborrontzi propioak ipiniko ditugu, esaterako, eskoletan, supermerkatu kanpoan eta beste hainbat lekuetan. Zaborrontzi horietan plastikoak bakarrik botako da.